



Arartekoaren 2013ko abenduaren 11ko ebazpena. Horren bidez, Bilboko Udaltzaingoak abandonatuta dauden eraikin batzuetan lo egiten zuten etxerik gabeko atzerritar batzuk aterarazteari buruzko kexa baten ondoriozko jarduna amaitu da.

Aurrekariak

1. (...) elkarteak gure esku-hartzea eskatu zuen 2012ko azaroaren 8an Bilboko Udaltzaingoak burutu zuen ateraraztearen ondorioz. Gertaera Zorrozaurren dauden bi industria-pabilioi abandonatutan jazo zen; bertan, etxebizitzarik ez duten atzerritar batzuek lo egiten zuten.

Kexa aurkeztu zuen elkarteak adierazi zuen poliziaren jardura horretan Polizia Nazionalak eta Ertzaintzak parte hartu zutela eta Polizia Nazionalak tartean zeuden hamarnaka pertsona Indautxuko polizia-etxera eraman zituela.

Modu berean, aipatutako elkarteak kexatu da azaroaren 15ean (hau da, hurrengo egunean) toki berean poliziak beste jardura bat gauzatu zuelako eta aurreko esku-hartzea burutu bitartean identifikatutako zenbait pertsona atxilotu zituztelako. Horrez gain, hilabete bereko 30ean Udaltzaingoko bi agente pabilioi bateko zaindariaren etxean sartu ziren eta bertan zeudenei euren gauzak jaso behar zituztela esan zieten eraikina eraitsi behar zutelako.

2. Kexa izapidetzeko onartu eta aztertu ostean, Bilboko Udalera jo genuen gaiari buruzko informazioa biltzeko helburuarekin.

Lankidetzaren eskaeraren bidez aurreko kexa-espedita batzuetan jasotako iritzia bera errepikatu genuen, guztiek Udaltzaingoak abandonatuta dauden eraikinetan gauzatu dituen antzerako esku-hartzeak baitituzte hizpide. Laburbilduz, aditzera eman genuen etxerik ez duten etorkinak abandonatuta dauden eraikinetan baldin badaude eta aterarazteko jarduna burutu behar bada, alde aurretik horren plangintza egin behar dela eta arazoaren alde soziala kontuan hartu behar dela. Halaber, pertsona horien integrazioari buruzko politika publikoak errespetatu behar dira eta, herritarren segurtasunaren ikuspegitik, aterarazteak justifikatzeko ematen diren arrazoiak gertakari zehatz eta objektiboetan oinarrituta egon behar dira eta behar bezala arrazoitu behar dira. Hori gutxi balitz, aterarazteak epailearen baimena behar dute, agerri-ageriko delituen kasuan edo eragindako pertsonen baimena ematen dutenean izan ezik.

Bide batez, udalari gogorarazi genion urriaren 28ko 7/2011 Gomendio Orokorrean ("[Berme sistema poliziaren jardura eta praktiketan](#)") proposatu genituen neurriak ezartzeko beharra, atzerritarrekin jardura baztertzailerik saihesteko helburuarekin, batez ere, identifikatzeko kontrolen eta immigrazioari buruz ematen den informazioaren alorrean.



Era berean, esku-hartzeak bermeak errespetatu ote zituen egiaztatzeko behar genuen informazioa helarazteko eskatu genion; izan ere, gure ustez, eremu horretan zenbait berme aintzat hartu behar ziren, igorri genituen aurreko gogoetetan islatu genuenarekin bat eginez. Zehatz-mehatz, honako informazio hau bidaltzeko eskatu genion:

a) aterarazitako pertsonengan, elkarbizitzan eta eremu horretako segurtasunean eragina duten eta aurretik egindako esku-hartzeak edo irekitako atestatuak.

b) ateraraztearen ondorioz Udaltzaingoaren edo Ertzaintzaren eskumenengan eragina izan duen beste jardueraren bat burutu ote den (Ertzaintzari dagokionez, bakarrik horien berri eduki baldin badu).

c) Udaltzaingoak eraikinak husteko epailearen baimena ote zuen.

d) gizarte zerbitzuek pertsona horien gizarte zaurkortasun egoerari lotuta burutu zuten esku-hartzea, ireki diren espedienteen kopurua eta kasu zehatz bakoitzari lotuta egin diren jarduerak.

e) aterarazitako pertsonen segurtasunaren eta gizarte zein etxebizitza beharren garrantzia kontuan hartu zuen alde aurreko plangintzaren bat egon ote zen eta zein izan zen horren edukia.

f) etorkinen integrazio politiken ardura zuten udaleko lan-taldeen alde aurretiko txostenen bat egon ote zen edo talde horiei kontsulta egin zieten.

g) zergatik eskatu zen Polizia Nazionalaren laguntza, Poliziaren Zuzendaritza Nagusiaren 2/2012 Zirkularra indarrean sartu ostean. Azken hori herritarrak identifikatzeari buruzkoa da eta, horren arabera, identifikatu ez diren pertsonak bakarrik eraman daitezke polizia-etxera identifikatzeko xedearekin honako kasu hauetan *"de las que razonable y fundadamente pueda presumirse que se hallan en disposición actual de cometer un ilícito penal, o a aquellas, igualmente no identificables, que hayan incurrido en una infracción administrativa"*.

h) zein prozedura erabili zen aterarazitako pertsonen gauza pertsonalei dagokienez, hau da, non utzi zituzten eta berreskuratzeko aukera eduki ote zuten.

i) zenbat pertsoneri eragin zien aterarazteak eta Polizia Nazionalak zenbat pertsona atxilotu zituen.

j) gertakariei lotuta interesgarria izan daitekeen beste edozein kontu, baita udalak helarazi dizkiogun gogoeten inguruan duen iritzia ere.





3. Gure eskaerari erantzunez, udalak ateraraztea justifikatu zuen, honakoa adieraziz: *“en las reiteradas denuncias vecinales y de la queja de la propiedad de los inmuebles (...), reclamando mayor presencia policial y una actividad de control respecto a las personas que se encontraban irregularmente pernoctando en pabellones industriales en dicha zona de Bilbao, sobre todo porque, pudieran ser presuntamente sospechosos de realización de ilícitos penales o administrativos”.*

Halaber, hauxe gaineratu zuen *“se observaba un problema de insalubridad y seguridad estructural física de los propios pabellones abandonados y que podía perjudicar a los propios ciudadanos que permanecían en su interior sin ninguna medida de seguridad o higiénico-sanitaria”.*

Herritarren segurtasunaren ikuspegitik, poliziaren jarduera justifikatzen duten gertakari zehatzei dagokionez, hauxe eman zuen aditzera:

“Por citar algunos episodios respecto a la inseguridad que se manifestaba en dicha zona, se pueden enumerar algunos ejemplos:

A primeros del mes de noviembre de 2011, hubo una denuncia de la madre de un menor por el acoso sufrido por su hija, cuando se dirigía a su domicilio en las inmediaciones de Zorrozaurre, al parecer los presuntos autores podían haber sido algunos de los jóvenes que pernoctaban en los pabellones de la zona.

Respecto a la intervención realizada el día 8 de noviembre, al menos trece personas, de las identificadas por el cuerpo Nacional de Policía tenían antecedentes por presuntos delitos cometidos en los últimos años.

Otro episodio grave fue cuando un joven de los que pernoctaba en dicha zona de Zorrozaurre fue detenido en otro lugar de la Villa, por un presunto delito de robo con violencia y atentado a los agentes el día 11 de noviembre de 2012.

Por no extendernos más en la casuística, uno de los últimos episodios ocurridos en dicha zona fue el pasado día 24.02.2013, en dicha fecha, sobre las 08,00 horas, se produjo un incendio en la empresa Cromoduro, Zorrozaurre nº 8, teniendo que intervenir tres unidades de la Policía Municipal y ocho unidades del Servicio de Extinción de Incendios, al parecer el incendio lo provocó con una vela encendida, una persona que pernoctaba en el interior del pabellón, resultando herido un bombero a consecuencia de la intervención”.

Polizia Nazionalaren esku-hartzearen eta Udaltzaingoak herritarren segurtasunari lotutako arazoak direla-eta burutu zituen jardueren inguruan (udalak emandako informazioaren arabera, arazo horiek poliziaren esku-hartzea justifikatu zuten) udalak zera adierazi zuen: *“La intervención del Cuerpo Nacional de Policía y el traslado de algunas de las personas desalojadas ala comisaría del C.N.P., fueron realizadas para la completa*



identificación de las personas que se encontraban en el interior de los pabellones, ya que, algunas de ellas no portaban documentación acreditativa de su personalidad ni de lugar de origen o residencia. Respecto al número de detenciones practicadas, entendemos que es el C.N.P. quien debe responder a esa cuestión, la Policía Municipal en dichas intervenciones no practicó detención alguna”.

Gure informazio eskaerak hizpide zituen gainerako kontuen inguruan, udalak hauxe eman zuen aditzera:

“En cuanto a la atención de los Servicios Sociales, hubo comunicación telefónica a los mencionados servicios municipales para que atendieran la situación de las personas que se iban a desalojar.

Respecto a las medidas de carácter social para atender la situación de vulnerabilidad social, cuando se detectan casos con dicha problemática, desde el Área de Seguridad se acompaña habitualmente a los Servicios Sociales cuando es requerida nuestra colaboración.

Así mismo, de forma ordinaria, se informa a los departamentos competentes municipales de Acción Social, sobre situaciones de desprotección o vulnerabilidad observadas por los agentes municipales en su quehacer diario.

En cuanto a los objetos personales de los desalojados, se les ofreció la posibilidad de recoger sus enseres y llevárselos consigo”.

Udalak ez zuen aipatutako informazioaz gain besterik helarazi eta ez zien gure eskaeran bildu genituen galdera zehatzei erantzun, zehazki, aurreko a), b), c), d), e), f), g) eta i) ataletan adierazitako alderdien gainekoak. Gainera, ez dakigu zein den igorri genizkion alde zuzeneko gogoeten gainean duen iritzia.

4. Geroago, administrazio horri [Arartekoaren 2013ko apirilaren 24ko ebazpena](#) bidali genion, beste kexa-espedita bati buruzkoa, baina esku artean dugun kexa aurkeztu zuen erakunde berak aurkeztutakoa. Kexa horrek Udaltzaingoaren aurreko beste jardura bat zuen hizpide, oraingo honetan azaldutakoaren antzerakoa.

Ebazpenean udalari espedita horren baitan igorri genion informazio eskaeran aurreratu genizkion gogoetak garatu genituen.



Gogoetak

Kexaren bidez mahai gainean jarri diren kontuak eta Bilboko Udalak kontu horiei eman dien erantzuna funtsean erakunde honek [2013ko apirilaren 24ko ebazpenean](#) zehaztasunez aztertu zituen kontuekin bat datoz.

Esan bezala, aurrekarietan ebazpen hori aipatu baitugu, kexa hori elkarte berak aurkeztu zuen erakunde honen aurrean, lehenago, eta Udaltzaingoaren antzerako jarduera bat zuen hizpide.

Bi espedienteen artean dagoen antzerakotasunaren ondorioz, aipatutako ebazpenean jaso genituen gogoeta orokorrak eta balorazioa errepikatu behar ditugu eta, horiek oinarritzat hartuta, ondorioztatu dugu udalak ez duela justifikatu kexan islatu diren jarduerak jarraibideak errespetatu zituzten ala ez, nahiz eta Ararteko erakundearen irizpideari jarraiki, alor horretan horiek errespetatzea ezinbestekoa izan; betiere, aipatutako agirian adierazitako terminoetan, igorri genuen informazio eskaeran aurreratu genuen bezala.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

Gomendioa

Bilboko Udalak beharrezkoak diren neurriak hartu behar ditu abandonatuta dauden eraikinetan bizi diren eta etxerik ez duten pertsonak aterarazterakoan [2013ko apirilaren 24ko ebazpenean](#) Arartekoak jaso zituen bermeak errespetatzen direla ziurtatzeko.

Berme horiek honela bidera daitezke:

- a) eraikinak hustu baino lehen, arazoaren gizarte alderdia aintzat hartuko duen plangintza egin dadila.
- b) huste horiek bat etor daitezela pertsona horiek gizarteratzeko politika publikoekin.
- c) epailearen baimena izan dezatela, ageri-ageriko delitua egiten ez bada behintzat, edo eragindako pertsonen onespena tartean ez bada behintzat.
- d) justifikazio gisa ematen diren herritarren segurtasunerako arrazoiak egintza zehatz eta objektiboetan oinarritu daitezela, eta behar bezala arrazoituta egon daitezela.

